

## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Esan dugun moduan, gure produktua bezeroengana helarazteko instagrameko kontu bat egingo dugu, bertan egunero itsasoaren argazki bat igoko dugu, itsasoaren eboluzioa ikusteko gure produktuari esker. Gainera, ere aipatu dugu astean behin zaborrontzia aldatuko dugu beraz, domeka guztietan xurgatutako zabor guztiaren argazki bat igoko dugu, gure helburua honegaz da lortzea astetik atera xurgatutako kantitatea gero eta gutxiagoa izatea. Horrela ikusiko dugu danok gure partetik jartzen mundua hobetu ahal dugula eta bizitzeko baldintzak askoz hobetoagoak izango direla.

Gure produktua bezeroei helarazteko ere saiatuko gara influencer-ekin kontaktatzen, haiei esker jende askori helduko zaiolako gure produktua. Horren truke soldata txiki bat jasoko dute.



Udaletxeak ere asko lagunduko digu, gainera herri batzuetan bilerak prestatuko ditugu jende guztia elkartzeko eta horren berri emoteko. Gero eta pertsona gehiago laguntzen badute orduan eta hobetu izango da eta askoz hobeto biziko ginateke.

Gainera Euskal Herriko futbol talde bien jarraitzaileak (Athletic eta SD Amorebieta) gara eta haiekin jarri gara kontaktuan, partidu guztietan gure produktua aurkezteko. Hori eginez, asko lagunduko digu.

Beste alde batetik Iñigo Urkullurekin harremanetan jarri gara eta berari esker gure produktua asko zabalduko da herri guztietatik.